



GUTXIAGOTZEKOAK DIREN LANPOSTUAK (-1). Informazioa eta aukerak.

▪ EZABATZEA

- Gutxiagotzekoa den lanpostu batek eragiten dien pertsonak erabil dezaketen eskubidea. Hautazkoa da eta ez du inor behartzen.
- Lekualdatze-lehiaketa garaian lanpostua ezabatzeko eskubidea eskatzeko aukera ematen bada eta ikastetxe bereko hainbat pertsonak erabili nahi badute, lehentasuna izanen du ikastetxe horretan antzinasun handiagoa duenak (maisua maistren kasuan ikastetxean duena eta irakaskuntza ertainetan kidegokoa).
- Norbaitek ezabatze eskubidea erabiltzen duen momentuan, behin-behineko egoeran egotera pasatzen da eta ezin da atzera bota). Azpian azaltzen ditugun eskubideetako bat erabili ondoren ez badiote lanpostu finkorik ematen, berriz ere behin-behineko eran geldituko da. Eskubide hauetakoren bat erabili ezean, ofiziozko lanpostua eman diezaiokete.

▪ **EZABATZEA ESKATZEN DUEN PERTSONAREN ESKUBIDEAK.**

Ezabatzea eskatzean, hauetako bat erabiltzera behartzen du araudiak.

Eskubide hauek, behin-behineko lanpostu finkoa lortu arte behin eta berriz erabili ahalko ditu ezabatzea eskatu duen pertsonak.



Ikastetxean lehentasunezko eskubidea. Eskubide hau erabiliz gero, ikastetxean bertan lanpostua aukeratzeko lehentasun osoa izanen da (habilitazioa duen espezialitate guztiak nahieran erabiliz nahi izanez gero). Gogokoa den lanpostu batekin gutxienez eskabidea betetzea gomendatzen dugu, hau egin ezean ofiziozko lanpostua eslebi baitezakete.

Herrian edo zonaldean lehentasunezko eskubidea. Kasu honetan, partehartzailea habilitatua dagoen espezialitate guztiak erabiliz eta herri horretako ikastetxe guztietara parte hartzera behartzen da (aukerazkoa hizkuntza profil duten lanpostuekin, eta aukeran ere zonaldeko ikastetxeak jartzea), nahi duen hurrenkeran ordenatuz. Hala egiten ez badu ofiziozko lanpostu bat eman diezaioke. Honenbestez, kasu honetan herri berean parte hartzea derrigorrezkoa da, ez ordea zonaldean.

Goiko bi kasuetan ohiko lekualdatze-lehiaketaren bidez ere parte har daiteke lehentasunezko eskubideak erabiltzeaz gain, horrela bi aukerak agortuz.

-1ean dagoen pertsonak ezabatzea eskatu ezean, pertsona horri ez zaio lekualdatze-lehiaketan parte hartzera behartzen, eta Ekitaldi Publikoan ala Telematikoan lanpostua hartzera pasatuko litzatekeela **lan karga faltagatik zerbitzu eginkizunetan.** (Osasunagatik zerbitzu eginkizunetan daudenen ondotik aukeratuko lukete, eta beste guztien aurretik).

Lanpostu ezabatze eskabidea egiteko Lekualdatze Lehiaketaren epe barruan **5 egun baliodun egon ohi dira** (dagokion deialdian zehaztuak).